

## Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Etikasi programaren bigarren deialdia zabaldu du

- Etikasiren helburua “etikaz eta giza eskubideez ikastea” da hausnarketa sustatzeko eta horretarako Auschwitz eta Belfast bisitatuko dira
- Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean egindako proiektuan 1. Batxilerreko ikasgelek eta Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako ikasleek parte har dezakete

*Donostian, 2020ko urtarrilaren 30ean.* Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Etikasi programaren bigarren deialdia zabaldu du gaur goizean. Ekimen honen bitartez “gerragatik markatutako hiri europarrak bisitatzeko” aukera eskainiko zaie “Batxilerreko, Lanbide Heziketako Erdi eta Goi Mailako heziketa zikloetako eta Unibertsitateko ikasleei”. Zehazki, Batxilerreko 1. mailako ikasgelek lau egun igaroko dituzte Auschwitzen eta 18 eta 30 urte bitarteko Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko ikasleek bost Belfasten (Ipar Irlanda).

EGK-k ohar batean jakinarazi duenez, **Etikasi programaren** helburua gazteek “etikaz eta giza eskubideez ikastea da” hausnarketa sustatzeko, besteak beste “kontzentrazio esparrua izateagatik markatuta gelditu diren hiriak edo indarkeria gordina jasandako zonaldeak” bisitatu. Izan ere, giza eskubideetan hezkuntzaren ikuspegitik “zuzenean eta pertsonalki leku horietan egoteak eta jazotako gertakizun traumatikoei buruzko istorioak ezagutzeak potentzial pedagogiko handia eta iraunkorra” du. Beste pertsonen lekuan jartzea eta mundua beste leku batetik ikustea ahalbidetzen baitu.

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin elkarlanean garatutako programa hau 2017ko ekainaren 29an aurkeztutako ‘Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza Programa Osagarria 2017-2020’ dokumentuan kokatzen da. Hau,aldi berean, gobernuaren 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan proposamenetik dator. Bere 9. ekimenak Eusko Jaurlaritzaren jarduera-aurreikuspena zehazten du hezkuntza alorrean, bizikidetzan eta giza eskubide heziketako errefortzu-programa baten garapenean zentratua.

### Aurretiko zein osteko formakuntza

Etikasi programa ez da bidaia hezitzailetara soilik mugatuko. Talde bateko zein besteko parte-hartzaileek bidaia egin aurretik eta bertatik itzuli ostean formakuntza bana jasoko dute. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak adierazi duenez “programa hezitzaileak giza eskubideei buruzko hausnarketa bat sustatzea du helburu, giza duintasunean oinarritua eta bakearekiko, aniztasunarekiko eta elkartasunarekiko konpromisora bideratua, betiere enpatiatik”.

Horregatik, talde bakoitzak lanketa bat egin beharko du. Batxilerreko 1. mailako ikasleek otsailak 25aren aurretik gelaka eman beharko dute izena eta martxoaren 12rako euren bideoa bidali. Honetan

giza eskubideei buruzko hausnarketa bat egin beharko dute, euren inguruan emandako urraketa bat identifikatu edo urraketek amankomunean dutena aztertuz. Bideoak originala izan beharko du eta 3 eta 6 minutu bitarteko iraupena.

Bestetik, Unibertsitateko zein Lanbide Heziketako ikasleek, betiere 18 eta 30 urte bitartean badituzte, martxoak 8a arte eman ahalko dute izena, kasu honetan banaka. Era berean, martxoak 12a arte izango dute epea proiektuan parte hartzeko arrazoiak aurkezten dituen motibazio eskutitza, 900 eta 1500 hitz arteko giza eskubideei buruzko hausnarketa pertsonala, ingeleseko FCE-B2 maila erakusten duen ziurtagiria eta Ikasgaiak egiten ari direla erakusten duen dokumentu bat (matrikula, adibidez) aurkezteko.

Bi taldeetan izen eman duten parte-hartzaile guztien dokumentazioa eta lanak aztertu ostean, epaimahaiak ebazpenak apirilaren 2an jakinaraziko ditu eta bidaiak ekaina amaieran Auschwitzera eta uztaila hasieran Belfastera egingo dira.

### Programaren helburua eta laguntza-kopurua

Bisita hauek bost eguneko iraupena izango dute gehienez eta bi talderentzako eskainiko dira:

- **Lehen taldea:** gehienez 30 plaza eskaintzea aurreikusten da **Batxilergoko 1. mailako ikasle-taldeek** lau eguneko bisita egin dezaten Auschwitzera, Polonia.
- **Bigarren taldea:** gehienez 30 plaza eskaintzea aurreikusten da Lanbide Heziketako Erdi eta Goi Mailako heziketa zikloetako eta Unibertsitateko ikasleek bost eguneko bidaia egin dezaten Belfastera, Ipar Irlanda.

Bi kasuetan **10 egun naturaleko** epea egongo da 2020ko martxoaren 13tik martxoaren 22ra (biak barne) arrazoi bat edo bestearengatik osatu gabe dauden **eskaeren zuzenketarako**. **Ebazpena apirilaren 2an** izango da. Ebazpena publiko egiten denetik, Etikasi programan parte hartzeko hautatuak izan direnek gehienez 10 egun natural izango dituzte programan euren parte-hartzea berresteko. Hau da, 2020ko **apirilaren 12** arte.

Emaitzaren onarpenak, **bidaiaren aurreko formakuntza** parte hartzeko konpromisoa onartzen dutela esan nahi du. Parte-hartzaileek bidaiaren ondoren beste lan bat egin beharko dute, bidaiaren ezagututako lekuaren eta Euskadin egindako memoria kritikoaren artean etikaren ikuspuntutik dauden amankomuneko puntuei buruz ondorioak ateraz. Honetarako, parte hartzaileek bidaiaren inpaktua **ebaluatzen duen hezkuntza-modulu** bat garatu beharko dute.

Behin-behineko kronograma (taldeen beharretara egokitu daiteke):

- Bidaia aurretiko formakuntza: 2020ko apirila eta maiatza
- Bidaia: 2020ko ekaina eta uztaila
- Ebaluazio-modulua: 2020ko iraila

Oinarrien eta deialdiaren hautapen prozesuari buruzko informazio guztia [www.egk.eus](http://www.egk.eus) webgunean topa daiteke.